

ERABAKIA, 2016ko ABENDUAREN 21koa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, UPV/EHUren DOKUMENTUAK SAILKATZEKO TAULA ONARTZEKO DENA

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2016ko abenduaren 21ean, idazkari nagusiak erabaki proposamen bat helarazi dio errektore honi, UPV/EHUren dokumentuak sailkatzeko taula berri bat onartzea eskatzen duena. Administrazio Modernizazioaren Batzorde Exekutiboak oniritzia eman zion dokumentuak sailkatzeko taularen proposamenari, 2016ko urriaren 14ko saioan. Gainera, zerbitzu guztietara bidali zen, alegazioak aurkez zitzaten, eta dokumentuari erantsi zitzaizkion azaroaren 11 arte jaso ziren guztiak.

Bigarrena.- Proposamenaren arabera, sailkatzeko taula funtsezko baliabidea da edozein erakunderen dokumentu kudeaketan, eta UPV/EHU indarrean dagoena eredu misto bat da (organiko-funtzionala). 1996an onartu zenez, zail da aplikatzen, azken 20 urteotan unibertsitatearen organigraman izan diren aldaketa ugariak direla-eta. Sistema konplexu guztietan gertatzen den -eta, erakunde biziak izanik, gertatuko den- etengabeko aldaketa horrek gomendagarri egiten du erakundearen funtzioetan eta jardueretan oinarritutako sailkapen bat, aldaketa handirik izan ohi ez dutenak, egonkortasun handiagoa emateko sailkapen taulari.

Sailkapen taularen proposamenean, unibertsitate antolakuntzaren jardueren egitura hierarkiko funtzional bat aipatzen da, aukera ematen duena dokumentuak eta espedienteak multzokatzeko, dokumentu horiek sortu dituzten funtzio, prozesu eta jardueren eta haien sailkapen mailen arabera. Sailkapen taula berriak, beraz, dokumentuari dagokion prozeduraren arabera kodetzen du dokumentazioa, prozedura kudeatzen duen egitura organikoa gorabehera, kontuan izanik UPV/EHUko sailkapen posible guztiak, eta unibertsitateak sortuz geroztik garatuz joan den funtzio eta jardueren zerrenda eguneratuz.

Sailkapen funtzionaleko sistemaren abantaila nagusia da sistema objektibo eta koherentea izatea, logika bati erantzuten diona:

- 1.- Unibertsitatea, antolakuntza oro gisa, helburu batzuekin sortu zen (ikerketa, irakaskuntza eta ikasketa), eta antolakuntza egitura bat sortu zuen helburu horiek betetzeko. Egitura horri funtzio zehatz batzuk ematen dizkio, aldatu egin daitezkeenak denborarekin.
- 2.- Funtzio horiek betetzeko (ikasleen eta ikasketa programen kudeaketa, giza baliabideen eta baliabide akademikoen eta administratiboen kudeaketa, ikerketaren kudeaketa, baina baita baliabide ekonomikoen eta azpiegituren kudeaketa ere, etab.), administrazio jarduerak batzuk

egiten dira (matrikula, langileen sarrera probak, gobernu organoek erabakiak hartzea, materiala erostea, etab.), dokumentuetan jasotzen direnak.

3.- Dokumentuak antolatu egin behar dira, sortuak izan diren prozesua agerian uzteko moduan, artxibogintzaren printzipio metodologikoen arabera.

Hirugarrena.- Honako hauek dira proposatu den sailkapen taularen ezaugarri nagusiak:

- a) Funtzionala. Sailkapen taularen egituran, UPV/EHUko organo eta unitateek dituzten funtzio eta jarduerak azaltzen dira.
- b) Unibokoa. Funtzio bati lotutako dokumentazioa ezin daiteke bi edo kode gehiagorekin sailkatu, eta sistemak hori bermatzen du.
- c) Aldi baterakoa. Sailkapen taula egonkorra da, baina ez behin betikoa, organismoan gertatzen diren aldaketei erantzun behar dielako.
- d) Malgua. Funtzio edo jarduera berriak sar daitezke, halako moldez, non sistema egokitu egin daitekeen administrazio unitate bakoitzaren idiosinkrasiara eta unibertsitatearen egitura organiko eta funtzionalera.

Gainera, ahalegina egin da sinplea izan dadin, edozein unibertsitateko kidek ulertzeko modukoa, eta eraginkorra; hau da, informazio bat behar denean hura aurkitzeko balioko duena.

Ondorioz, proposatzen den sailkapen taula berria kudeaketa tresna bat izango da, egitura hierarkiko eta logiko bat ezarriko duena UPV/EHUk sortzen dituen dokumentuentzat, funtzioen eta jardueren arabera multzokatuak. Taula berri hau onartuz, helburua da tresna ofizialtzea bere egitura berriarekin, baina aldatuz doan baliabide bat dela ahaztu gabe, behar beste aldiz moldatu beharko dena, zerbitzuen funtzionamendura egokitzeko.

Laugarrena.- Azkenik, sailkapen taula berri bat martxan jartzea erabaki estrategiko bat da, ezinbestekoa urratsa egiteko administrazio elektronikorantz (herri administrazio guztiek kontuan izan behar dute berriki indarrean jarri den Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritakoa: hots, administrazio prozedura erkideak elektronikoa izan behar du), dokumentuen kudeaketa errazten duten aplikazio guztietan eta, bereziki, artxibatze aplikazioetan sartzeko beharragatik.

Horregatik guztiagatik, Estatutuen 181.2 artikulua errektoreari ematen dizkion gaitasunak erabilita, erabaki hau hartzen da.



ERABAKIA

Lehenengoa.- UPV/EHuren dokumentuak sailkatzeko taula onartzea, erabaki honen **I. eranskinean** adierazten den moduan.

Bigarrena.- Ahalmena ematea UPV/EHUko idazkari nagusiari, erabaki bidez eta Administrazio Modernizazioaren Batzordearen txostena jaso ondoren, zerbitzuen funtzionamendura egokitzeko behar diren eguneratzeak eta egokitzapenak onartzeko. Aurrekoa gorabehera, taula berria indarrean sartu eta 2 urte igarotzen direnean, berrikuspen eta eguneratze orokor bat egingo da, errektorearen erabaki bidez onartu beharko dena.

Hirugarrena.- Dokumentuak sailkatzeko taula unibertsitatearen egoitza elektronikoan argitaratzea, eta Idazkaritza Nagusiaren webgunean, zeinak erabaki honen berri emango baitie UPV/EHUko administrazio zerbitzu guztiei, Berrikuntza eta Administrazio Modernizazioaren Zerbitzuaren bidez.

Laugarrena.- Sailkapen taula berria indarrean jarri ondoren, Pertsonaleko Gerenteordetzak, Idazkaritza Nagusiarekin batera, taula egoki ezartzeko behar diren jarduerak eta ekintzak antolatuko ditu.

Bosgarrena.- Erabaki hau indarrean egongo da 2017ko urtarrilaren 31tik aurrera, eta sei hilabeteko epea hasiko da egun horretan sailkapen taula behin betiko ezartzeko.



Inaki Goñizelaia Ordorika
UPV/EHUko ERREKTOREA

Nik, Jose Luis Martin González jaunak, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau hitzez hitz datorrela bai jatorrizkoarekin. Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2. zuzk) izenpetua, 2013ko urtarrilaren 10eko erabakiaren bidez izenpea eskuordeluta.
2016 (e)ko XII (a)ren 23.a

Jose Luis Martin González, Secretario General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original.
Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de Idazkaritza Nagusia, 2013, la jefe de Negociado de Secretaría General (do. 2).
Leioa, 2016 (e)ko XII de 2016



UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 1914/2016 Erabaki Zk.

M